

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Erlezain txikerra Monsanto erraldoiaren kontra

Monsanto den Goliat ahalguztidunari David txiki bat matxinatu zaio Alemanian, Karl Heinz Bablok erlezaina. Ez da munduan bakarri hazi transgenikoetan oinarritutako estrategia monopolistari oldartzen zaiona. Elikagaien prozesu osoaren kontrola da eztabaidagai.

KARL HEINZ BABLOK ERLEZAIN *hobbysta* da, ez da erleetatik bizi. BMW auto fabrika ari da lanean, Suabia eskualdean, eta asti librea duen aldioro Kaisheim herrixkara doa bizikletaz, hiriko burrunbatik ihesi. Han daukan erlategian hartzen du patxada. Edo hartzen zuen, esan beharko. Gauetik goizera albistegietako izar bihurtu baitute epaitegiek. *Der Spiegel* aldizkari kontserbadoreak ere leku egin dio haren eta Monsanto multinazionalaren arteko auziari.

Monsanto da bioteknologian munduko nagusietakoa. Genetikoki eraldatutako landareetan (OGM ingelesezko sigletan) monopolioa dauka esate baterako. Milioika hektarea daude munduan Monsantoaren arto, soia, arroz eta beste laborez horniturik. Estatu Batuetan, Argentinan, Brasilen eta bestetan arras bereganatu du nekazaritzarako hazien merkaturia. Aldiz, Europako leku askotan oraindik arazoak ditu muturra sartzeko, transgenikoen arriskuez hemen jendea kezkatu delako.

Zezen handi hori toreatzea egokitu zaio Bablok erledun txikiari. Haren eultzetatik hurbil dago Bavariako estatuaren nekazaritzako ikerketa zentroa, eta bertan Monsantoaren MON 810 arto transgenikoa erein dutenean, Babloken erleek haren polenez kutsatu dituzte kofonetako eztiak.

Bablokek berak eraman zituen eztiak laginak analizatzera laborategi batera, arto transgenikoaren beldur zelako. Eztiaren ez da polen askorik izaten, eta Bablokenetan pittin horren %7 baizik ez zen maiz transgenikoa. Hala ere, Augsburg-eko auzitegiarentzako aski izan zen Babloki debekatzeko ez bakarrik ezti hura saltzea, baita inori oparitzea ere. Lehenetakoa izango zen munduan ezti zaborretara botatzen.

Orain erledunak 10.000 euroko kalteordainak eskatzen dizkio Bavariako ikerketa zentroari, baina Alemaniako nekazaritzak askoz gehiago dauka jokoan Babloken eztiaren garrantasuna baino.

Babloki erlezainen elkarteak eskaini dion abokatuak auzitan aldarrikatzen du ezti Europar Batasunaren elikadura legearen baitakoa dela ebantzi beharra. Bavariako ikerketa zentroko abokatuak alderantzizkoa nahi lukete, ezti janarien legetik kanpo geratzea. Monsanto asko leukake galtzeko erlezaina irabazle aterako balitz. Arto transgenikoaren irudia okerragotzeaz gain salmentetan buruhaustek ekarriko lizkioke. Horregatik daude tartean bere abokatuak ere, munduan 2.500 legegizon kontraturik daukan Freshfields Bruckhaus Deringer bufetekoak.

Alemanian 4.000 hektarea sorotan baino ez dago Monsantoaren arto

"Si tienes claro que la rentabilidad es lo que más cuenta, puedes contar con Roundup PreSiembra."

Porque la rentabilidad es lo que más cuenta, Roundup PreSiembra, con el químico GL, proporciona mayor eficacia con menores dosis por hectárea. Así, lo permite tratar el doble de superficie que con los herbicidas convencionales, pues está especialmente diseñado para los tratamientos en presembrá.

UNIGO
PARA TRATAMIENTOS EN PRESEMBRA

Roundup[®]
PreSiembra¹⁰⁰

transgenikoa, eta horiek ere kontrolaturik eta beti oso eztabaidatuak. Konparatu munduan arto eraldatuak ereinak dauden 30 milioi hektareekin. Korporazioaren etekinak ere tamaina berekoak dira: 2.000 milioi dolar ia, 2012rako bi halakotu nahi dituztenak.

Kaisheimgo erlezainak bere ofiziolak gain OGMen kontrako militantek dauka sustatzaile. Alemanian talde asko dira labore transgenikoak egun argitan erazteko kanpainak burutzen dituztenak. Izerdi gutxiagoz eta diru askoz gehiagoz, Monsanto *lobby* lana egiten du Europa osoan. Espainian orain artean emaitza onak lortu ditu, baina Alemanian ez hainbeste.

Kutsatuak patentea zor

Bavariako ixtorioaren ifrentzua eguneroko bizi dute Amerikako Estatu Batuetan, hazi transgenikoen multinazionalaren jaioterrian. Hango laborariek ehun David txiki ez lituzkete aski izango Monsantoaren atzaparretatik libratzeko.

Linn Cohen-Cole kazetariak Monsanto AEBetako nekazarien gain darabilen zanaketa informazio franko eskaintzen du *Global Research* gunean. Han legeak 1980an korporazioei haziak patentatzea baimendu zientetik, nekazaritza osoa ari da kontrolatzen Monsanto. "Izututa bizi dira



Irudi handian, *Navarra Agrarian* Monsanto ipinitako publizitatea, *Roundup* haziak iragarri. 2008an Nafarroan 5.150 hektareatan erein ziren transgenikoak, 2006an ereindakoak ia bikoiztuz. Nafarroako soroetan den arto guztiaren herena da transgenikoa, Espainiako batz bestekoa baino (%22) askoz handiagoa. Joan den urrian Nafarroako Unibertsitate Publikoan Biolur elkarteak antolatutako jardunaldietan aurkeztu ziren datuok. Usadiozko haziekin edo biologikoan ari diren baserritarrek salatu dute transgenikoekin elkarbizitzea ezinezkoa dela, baina oro har hemen traba gutxi jarri zaie bai transgenikoei eta bai Europar arautuagoak dauden pestizidei. Argazki txikian ageri da Karl Heinz Bablok erlezain alemana Kaisheim herrixkan daukan erlategiaren aurrean. Auzitegiek behartu dute urteko ezta zakarretara jaurtikitzera, OGMez kutsatuta daudelako.

AEBetako nekazariak”, idatzi berri du Cohen-Colek.

Duela gutxi arte baserritarrek inguruko merkatariei erosten zizkieten ereiteko haziak. AEB osoan, munduko beste leku ugarian bezala, Monsanto bereganatu ditu hazi ekoizle txiki eta ertain asko. Hazien monopolio bihurtuta eta labore transgenikoen patenteen jabe, Monsanto nahi du laborari orok ordaindu diezaion uzta-oren portzentaia. Horretarako, azkenaldian geratzen diren azken hazi saltzailer autonomoei eraso egiten die presio multinazionalak baserritarrei. Hona bi adibide, ehunkaren artetik.

Illinoisen urtarrilaren polizia patruilek bixitatu zituzten 400 nekazari inguru, esanez laster auzitara deituko zituela Monsanto haren haziak

patentea pagatu gabe ereiteagatik. Hixon izeneko komertziantek bati erosten dizkiote haziak. Sistema zehazki honela dabil: nekazari bakoitzak uztaren zati bat eramaten dio bertako merkataritari, eta honek tresneria berezia erabiliz labore horiek garbitu eta tratatu ondoren hazitarako prest itzultzen dizkie, zerbitzuagatik hainbesteko bat kobratuz. Multinazionalak salaketa ipini du bere patentea daramaten haziak darabiltzatelako komertziantek eta baserritarrek.

Beste kasu bat, Missourin iaz jazoa, *Green Bio* gunek haizatu du. Pilot Grove herrian nekazari batzuek askatu nahi izan dute Monsanto lotuta zeuzkan uztarririk. Argentinan kasik monolabore bihurtu den *Roundup Ready* soia ereiten zuten urtero, eta

nazkatuta zeuden emaitzekin: patentea garesti, uztak gero eta kaxkarragoak, gero eta izurri ugariagoak soroetan... Korporazioko arduraduna ohartu zen nekazari batzuek ez zieten gehiago hazirik erosten eta pertsegizioa antolatu zuten, detektibe eta guzti. Ondoren, auzitara eraman dituzte ardi beltzak. Monsantoekin sinatu kontratuak dio hazi batek uzta bakarrerako balio duela, hurrengorako hazi berria erosi behar diozula, eta zure uztako hazirik ezin duzula erein, patentaturik dagoelako. Baina zer erein behar zuten, milia askotan bila ibilita ere Monsanto ez beste hazi saltzailerik topatu ezin denean?

2007an AEBetan multinazionalak espioitza sistema horren bidez 186 milioi dolar eskuratu omen zituen, patentea zaindu ez izanaren kalteordainetan. Aipatzen dira isunak ezin pagatu izanagatik nekazaritza utzi dutenen kasuak.

Baina oraindik Monsanto badu beste diru iturri bat gehiago, esperimentatzen ari dena. Europar biologikoan edo betiko haziekin jarraitzen duten nekazariak protesta egiten badute auzokoen transgenikoak uztak kutsatu eta kalteak eragiten dizkielako, epaitegietan argudioa azpiko gain jartzea lortu nahi du multinazionalak: auzokoaren kutsaduragatik izanik ere zuk zure hazietan Monsanto-ren patentea baldin badaukazu, ordaindu beharra daukazu.

Ez esan Bablok erlezainak ez duela nekazarien sari berezia merezi... ■

www.argia.com/nethurbil.php helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



ZINKUNEGI
OPTIKA

Kalitatea.

Aukerarik zabalena betaurreko graduatu, ukipen-lente, audiofono eta eguzkitako betaurrekoetan.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net

